

3. Funtsezko elkarteak

Gure erakundea, zenbait alderdi eta aspektuetan beste enpresa batzuen euskarria, babesa eta zerbitzuak behar ditu, funtzionamendu egokia izateko, arriskuak murrizteko, abantailak izateko eta baliabideak eskuratzeko.

Arriskuak murrizteko, seguro bat kontratatuko dugu. Edozein arazo baldin badugu konpondu ahal izateko. Hortaz aparte, beste enpresa batekin konpartituko dugu gure lokala. Gure pisuak, 4 gela ditu eta gug bakarrik 2 gela behar ditugunez, beste enpresa bati 2 gela horiek eskaini ahal dizkiogu eta gastuak erdi bana ordainduko ditugu. Berdin zaigu zer beste enpresarekin elkartu baina 2 bulego behar dituen enpresa bat izan behar da. Horrela arriskuak murriztuko ditugu, gastu gutxiago izango ditugulako alokairua ordaintzerakoan, erdibana delako.

Gasteizko udalari ere dirulaguntzak eskatuko dizkiogu, batez ere hasieran. Hasieran, gure tokia hornitzeko eta eroso egiteko, altzairu eta teknologiak behar ditugu eta horretarako, udaletxeak diru laguntza batzuk eman ahal dizkiugu. Udala, hainbat ordenagailu emateko prest dago, baita imprimagailu bat edozein papel imprimatu nahi badugu gure bezeroentzat.

Transazio finantzarioak eta enpresak hileru dituen gastuen eta sarreraren mugimenduak etab. menderatzeko, banku baten laguntza behar dugu, bertan kontu korrante bat irekiko dugu gure etekinak leku fidagarri batean edukitzeko beste gauzen artean. Diru laguntzak jasotzeko eta horrekin inbertsioak aurrera eramateko garrantzitsua da ere.

Hezkuntzako beste elkarte batzuekin ere elkartuko gara. Hitzaldiak egingo ditugu institutuetan eta unibertsitateetan. Horrela ezagutzera eman ahalko gara eta norbaitek laguntza behar duela uste badu, guregana etorri ahal da. Hitzaldiak ordubetekoak izango dira eta gure psikologoetako bat joango da Gasteizko eskola guztietara gure zerbitzua azaltzeko. Hainbat unibertsitateetan ere emango ditugu hitzaldiak, bertako jendeak gu ezagutzeko. Institutuetan ere, laguntza behar duen kasu bat detektatzen badute, gurekin kontaktuan jarri ahalko da eta guk gure zerbitzuak eskaini eta horrela, beraiekin elkarlanean arituz bezero gehiago lortuko ditugu.

Jende gehiagok gu ezagutzeko, lehenik sare sozialak izango ditugu: facebooken eta instagramen kontu bat. Bigarrenik, webgune bat izango dugu, jendreak sikologoak bilatzen baditu interneten gu ateratzeko eta bertatik gurekin kontaktuan jartzeko.

Gaur egun, mugikorretan ikusgarriak diren iragarkiak ezinbestekoak dira zerbitzuak promozionatzeko, batez ere gure enpresak bilatzen duen publikoa erakartzeko. Gazteen artean aplikazioen erabilera oso altua denez, bertan ere promozionatuko gara.